



**PINK  
TONGUE**

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

### **ZEIN DA ZURE BEZEROA?**

Gure bezeroa teknologia arazo edo beharren batekin zer ikusi daukan pertsona oro izango da. Bezeroa, beharrean dagoen edozein izango da, berdindu gaztea izan edo adineko bat izan. Egia da, gaur egun gazteak direla teknologian trebeak eta izan daiteke beraiek kontsumitzea gehien gure produktua. Lehen aipatu dugun bezala, gure produktua gazteei zuzenduta dago, adin-tartea hobeto zehazteko; gure bezeroak 15-25 urteko nerabeak izan ohi dira. (Horrek ez du esan nahi bezero-maila zabalagoa ez dugunik; horrek esan nahi du, normalean, hori izango dela gure bezeroen profila).

### **ZEIN DIRA BEZERO HORIEN EZAUGARRIAK?**

Bezero hauen ezaugarriak sinpleak izango dira. Interesa izan behar dute guk sortutako produktuan, baita ere beraiek egunerokoan erabiltzeko gai izan behar dira. Horretaz gain, erosleak izan behar dira, beraz, dirua izan behar dute hau ordaintzeko. Gure kasuan bezeroaren adinak ez du aparteko garrantzirik, baina gai izan behar da produktua hau erabiltzeko bere moduan eta agian hau egiteko egokienak gaur egun gazteak dira, beharraren arabera izango baita. Kontzientu batzuk ezagutzea ere ezinbestekoa izango da, nola jakin erabili ahal izateko. Adineko pertsona asko, ez dira teknologiarekin bizi eta baliteke ez izatea gai guk sortutako txip-aren erabilera egiteko. Gure bezeroak ere, interesatuak egon behar dira azken berrikuntzetan, produktu honek teknologia berrietan izango duelako agerraldia.